



www.uzturpe.eus



Guraso agurgarriak:

2016-2017 ikasturtean **gure ikastolan KiVa programa** jarri genuen martxan. **KiVa** bullying edo eskola-jazarpenaren aurkako programa da. Finlandian sortua eta hango ikastetxeetan ezarria.

Prebentzio modura, ikasleek tutoretza saioetan jazarpenari aurre hartu eta haren kontra borrokatzeko bideak ikasiko dituzte:

- Eztabaidak, talde lanak, eskola-jazarpenari buruzko film laburrak eta rol-jokoak.
- Errespetuaren garrantzia giza harremanetan edo taldeak jokatzeko duen rola.
- Jazarpenari aurre egiteko moduak hausnartu eta praktikatu.

KiVa taldeak eta tutoreek elkarrekin aurre egiten diete jazarpen-kasuei

KiVa taldea dago ikastolan, 3 irakaslez osatua. Trebatuak izan dira gelako irakaslearekin batera KiVa programa nola ezarri eta jazarpen-kasuez nola kudeatu jakin dezaten.

Zer egin dezakezue gurasoek?

- Zure haurra jazarria izaten ari dela susmatzen baduzu, edo besteei jazartzen ari zaiela uste izateko motiboren bat baduzu, mesedez jarri harremanetan ikastolarekin, auzia ahalik eta modu eraginkor eta azkarrenean bideratu ahal izateko!
- Jazarpenaren inguruan hitz egin etxean, baita jazarria ez bada edo besteei jazartzen ez bazaie ere.
- Garrantzitsua da zuk eta zure haurrak elkarrekin pentsatzea zer egin beharko litzatekeen norbait eskolan jazarria izaten ari bada!

KiVa Gurasoen Gida [hemen](#) duzu eskuragarri

Iker Gibelalde
Uzturpe Ikastolaren Zuzendaria





www.uzturpe.eus



Estimada familia,

El curso 2016-2017 **implementamos el programa KiVa en nuestra ikastola**. KiVa es un programa diseñado para prevenir y reducir el acoso escolar. Desarrollado en Finlandia y utilizado en sus centros escolares.

Como medida preventiva, los alumnos, aprenderán métodos para prevenir y combatir el acoso:

- Debates, trabajo en grupo, cortometrajes sobre el acoso y representación de situaciones.
- El respeto en las relaciones humanas y el rol del grupo en los casos de acoso..
- Reflexión sobre diversas formas de combatir el acoso y su puesta en práctica.

El equipo KiVa y el tutor o tutora atajarán juntos los casos de acoso escolar.

La ikastola tiene un equipo KiVa, formado por 3 profesores. Han sido instruidos para, junto al tutor o tutora, implementar el programa KiVa y atajar los casos de acoso.

¿Qué podéis hacer los padres/madres?

- Si sospechas que tu hijo/a está siendo víctima de un acoso o tienes motivos para creer que está acosando a otros, contacta con la ikastola para poder abordar la situación de la manera más rápida y eficiente posible.
- Habla sobre el acoso con tu hijo/a aunque no lo haya sufrido o no esté acosando a otros.
- Es importante que tú y tu hijo/a reflexionéis juntos sobre lo que se puede hacer si alguien es víctima de acoso en la ikastola.

La **Guía para padres y madres de KiVa** está disponible en **en este [enlace](#)** .

Iker Gibelalde
Director de Uzturpe Ikastola

